




# NEGOZIOEN KUDEAKETAKO GRADUA

**BILBOKO ENPRESA IKASKETEN  
UNIBERTSITATE ESKOLA  
(UPV/EHU)**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



## GRADUAREN OINARRIAK

- 1.Lan merkatuak tituludunei eskatzen dien profila zehazteko inkesta sakona egin dugu.
- 2.Graduak helburutzat du ikasketetan barrena profil hori lantzea.
- 3.Profil horrek hainbat gaitasun hartzen ditu bere baitan.
- 4.Gaitasun horiek lantzeko ikasmaterial jakin batzuk jorratuko dira.
- 5.Ikasmaterial horiek jorratzeko metodo eraginkorrenak erabiliko dira.






## GRADURA SARTZEKO PROFILA

Gradura sartu nahi duen ikasleak interesa izan behar du ekonomia eta enpresa munduan, baita herri erakundeetan ere, hala alor sozialak nola ekonomikoak aintzat hartuz.

Komenigarria da ikaslea gai izatea modu iraunkorrean lan egiteko, erraztasunak izatea ahoz nahiz idatziz komunikatzeko eta talde-lanean aritzeko, jakintza matematiko egokiak izatea, informazio eta komunikazio teknologiak ezagutzea, eta kanpoko hizkuntzak ikasteko gogoia izatea.





## GRADURA SARTZEKO BEHARREZKOAK DIREN GAITASUNAK

Gai izatea arduraz eta dedikazioz jokatzeko, unibertsitate mailako ikasketa hauek azken bururaino eramateko.

Gai izatea modu egokian eta ikuspegi kritikoz komunikatzeko (bai ahoz eta bai idatziz)


Prest izatea besteei laguntzeko eta talde-lanean aritzeko.

Gaitasun matematikoak eta abstrakziorako trebetasunak izatea.

Informatikaren eremuan nahikoa abilezia izatea, eta kanpoko hizkuntzak ikasi nahi izatea.

Enpresa jarduerak garatzen direneko eremuak ezagutzea, arlo sozialak eta ekonomikoak aintzat hartuz.





## GRADUATU ONDORENGO PROFILA

Gradua bukatzen duen ikasleak (tituludunak) gai izan behar du ekonomia eta enpresa munduko edozein eremutan gertatzen diren prozesuak eta eragiketak ulertzeko, eta trebetasun sozialak, pertsonalak eta lidergoarekin lotutako abileziak bereganatu behar ditu enpresaren edozein alorretan aritzeko.


Erabiltzen jakin behar du ekonomiari eta finantzei buruzko informazioa eskuratzeko eta aztertzeko beharrezkoak diren tresnak.

Gai izan behar du enpresaren edota merkatuen egoera konkretuei buruzko txostenak egiteko.

Horrez gain, enpresa bateko edo bestelako erakunde pribatu nahiz publiko bateko edozein alor modu eraginkorrean kudeatzeko behar diren kontzeptuak, ereduak eta tresna teknikoak ezagutuko ditu.

Sormena eta ekimena izango ditu talde-lanean aritzeko, baita era kritikoan pentsatzeko eta arrazoitzeko abilezia ere.






## GRADUATU ONDORENGO PROFILA - Helburuak

Profil horren bidez, Negozioen Kudeaketako Graduak oinarrizko ezagutzak eta gaitasunak ematen dizkio tituludunari errealitate ekonomikoa ulertzeko eta enpresaren edozein alorretan ganoraz aritzeko,

...joera eta gogo berezia erakutsiz bai kudeaketa praktikorako (produkzioa, finantzak, giza baliabideak, zergak, etab.)

...eta bai merkataritza zereginetarako (bezeroen arreta, salmentak, komunikazioa, logistika eta banaketa, etab.).






## GAITASUNAK

- 1 → Negozioen kudeaketan eta merkataritzan jarduera profesionala burutzea, irizpide kritikoz eta eraginkortasunez.
- 2 → Ekonomiaren, enpresaren eta merkataritzaren eremuetako elementuak eta erlazioak ulertzea, gero eta globalizatuagoak diren merkatuen testuinguruan.
- 3 → Negozioekin eta merkataritzarekin loturiko prozesuak eta eragiketak ulertzea, alor guztietan (antolakuntza eta administrazioa, kontabilitatea, finantziarioa, zergak, marketina...), eta horiek kudeatzeko tresna egokiak erabiltzea.
- 4 → Informazio ekonomikoa, legala, finantzarioa nahiz komertziala aztertzea enpresaren edozein alorretan, eta txostenak egitea arazoak ebatzi eta erabakiak hartu ahal izateko.






## GAITASUNAK (zeharkakoak)

- 5\*** → Ezagutzak, tresnak eta emozioak egoki erabiltzeko gai izatea autonomiaz aritzeko eta talde-lanean jarduteko, ekimenez jokatzeko eta erabakiak hartzeko, arriskuak neurtzeko eta hartzeko, lidergoa egikaritzeko, negozioei ekiteko eta etengabe hobetzeko.
- 6\*** → Jarduera profesionalaren oinarrietan printzipio etiko sendoak, konpromisoa eta erantzukizuna daudela barneratzea.
- 7\*** → Erraz eta egoki komunikatzea, ahoz zein idatziz, arrazonamendu kritikoa erabiliz, enpresaren eta merkataritzaren eremuetako gaietan.
- 8\*** → Informazio eta komunikazio teknologiak eta kanpoko hizkuntzak barneratzea jarduera profesionalean.






## UNIBERTSITATE MAILAKO LOTURA ETA BABESA NEGOZIOEN KUDEAKETAKO GRADUARENTZAT

- ***Recem (Red de Escuelas Universitarias de Estudios Empresariales del Estado)***
- ***Red europea de gestión y comercio (Red de centros universitarios europeos)***





## BABESA ETA LOTURA LAN MUNDUAREKIN

- ***Enpresetan lan egiten duten profesionalak irakasle arituko dira kontratu partzialarekin.***
- ***Ikasleen heziketa integrala (enpresa munduko profesionalek hitzaldiak eta mintegiak eskainiko dituzte, ikasketa-planetik kanpo).***

